

# PROBA ESPEZIFIKOA

2010eko PROBA



**HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Probaren iraupena: ordubete

### 1. TESTU-IRUZKINA. (4 puntu)

Asteartean, gizakiak inoiz egindako basakeria-erakustaldi handienaren hasiera gogoratuko du munduak. Gatazka hark nazioak zabortegei eta hiritarrak eskale bilakatu zituen, hainbat belaunaldiri hondamendia ekartzeaz gainera. Kronologiek diote duela hirurogeita hamar urte piztu zela, baina askoz lehenago hasi zen, hain justu Lehenengoa, Gerra Handia, amaitu zenean.

Porrotak, nazio alemanari armistizioaren ondoren ezarritako umiliazioak, eta irabazleek 1919an Versaillesko Hitzarmenean galtzaileei jarritako baldintza izugarri gogorrek berehala piztu zuten Alemanian mendeku-gogoa, Europan zuen lurraldearen zortzirenari eta kolonia guztiei uko eginarazi baitzioten. Gainera, 100.000 soldadura murriztu zioten armada, ontziteriari 15.000 unitate kendu zizkieten eta debekatu egin zioten derrigorrezko errekrutamendua egitea. Baldintza ekonomiko gogorrek estutu egin zuten herri teutoia. Lau alemaniarretik bat lanik gabe zegoen, langabeziaren ondorioz. Zalantzarik gabe, horiek guztiak elementu egokiak ziren giroan zebiltzan mugimendu nazionalistetarako. Horiek nork bideratu falta zen, besterik ez.

Agintari berriek politika bakezaletik berehala urrundu zuten Alemania, nahiz eta desarmatzeari buruzko biltzar bat egitera deitu zituzten nazioak, 1933aren bukaeran. Hura izan zen mugak gainditu zituen lehenengo iruzurra; izan ere, batzarraren ondoren, berriz armatzeko isilpeko prozesua abiatu zuten germaniarrek, 1934an onartutako programa bati jarraituz.

Urtebete geroago, argi hitz egin zuen goi-agintari batek: «Gaur altxatzen dira berriro Alemaniako Indar Armatuak», derrigorrezko soldadutzaren lege berria onartu bezain pronto. 1936ko udaberrian herritarren instrukzio militarra hasi zuten, eta berehala hiriak eta herriak hartu zituzten tropek, «Alemaniarentzako edozein lurralde» hartuko zutela zin egin ondoren.

Potentziek ere ez zioten arriskuari antzeman Nurenberg-eko kontzentrazio jendetsuen ondoren. 1937ko azaroan, jada, zabalkunderako jokalekua ezarri zen, agerian geratu zen moduan gerra amaitu ondoren Nurenbergen 22 gerra-kriminal epaitu zituen prozesuan aurkeztutako dokumentuetan. Eta berehalako helburuak ere finkatu zituzten. «Lehenik Austria eta Txekoslovakiako anexo politikoa eta militarra»...

... Tropa alemanak Polonian sartu ziren; Frantziak eta Erresuma Batuak Varsoviako Gobernuarekin elkarri laguntzeko sinatutako konpromisoen arabera jokatu eta gerra deklaratu zuten. Hori 1939ko irailaren 1ean gertatu zen. Asteartean, hirurogeita hamar urte beteko dira.

*Testu moldatua  
Anje Ribera*



GALDERAK

1. Erantzun, labur, galdera hauei, testuko informazioa eta zeurea erabiliz.

- A) Zer gatazkataz ari da testua?: Datak, ezaugarriak, jokalekuak, eta abar. (1 puntu)
B) Nola hasi zen gatazka? (2 puntu)
C) Zer ondorio izan zituen gatazka lurraldean eta politikan. (1 puntu)

2. Kronologikoki ordenatu informazio hauek.

(1 puntu)

- Pragako Udaberria
- Erromako Ituna sinatzea
- Indiaren independentzia
- Aliatuak Normandian lehorreratzea
- New York-eko burtsak krak egitea
- Estatu Batuek Vietnamen esku-hartzea
- Benazir Butto Pakistango lehen ministro izendatzea
- SESB desagitea eta Estatu Independenteen Erkidegoa sortzea
- Bi Alemaniak berriro bat egitea

3.Egin ezazu mapa honen iruzkin labur bat. (2 puntu)



Table with 2 columns: Spanish name and Basque name. Rows include: Damasco (Damasko), Alturas del Golán (Golango gainak), Jericó (Jeriko), Jerusalén (Jerusalem), Mar Muerto (Itsaso Hila), Puente de Dasmíya (Damia zubia), Hebrón (Hebron), El Cairo Occidental (Mendebaldeko Kairo), El Cairo (Kairo), ARABIA SAUDITA (SAUDI ARABIA), and a detailed description of the Golan Heights situation.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

**HISTORIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS*

*MAYO 2010*

***HISTORIA***

---

**4. Egin ezazu termino hauen definizio laburra. Seietatik hiru aukeratu behar dituzu.** (Ariketa, guztira: 3 puntu / puntu bat definizio bakoitzeko).

- a) Tximista-gerra
- b) Gerra Hotza
- c) Commonwealth
- d) *Apartheid*
- e) Protektoratua
- f) Armistizioa



**EBAZPENA: HISTORIA**

**(2010eko maiatza)**

Probaren iraupena: ordubete

**1. TESTU-IRUZKINA.** (4 puntu)

Asteartean, gizakiak inoiz egindako basakeria-erakustaldi handienaren hasiera gogoratuko du munduak. Gatazka hark nazioak zabortegei eta hiritarrak eskale bilakatu zituen, hainbat belaunaldi hondamendia ekartzeaz gainera. Kronologiek diote duela hirurogeita hamar urte piztu zela, baina askoz lehenago hasi zen, hain justu Lehenengo, Gerra Handia, amaitu zenean.

Porrotak, nazio alemanari armistizioaren ondoren ezarritako umiliazioak, eta irabazleek 1919an Versaillesko Hitzarmenean galtzaileei jarritako baldintza izugarri gogorrek berehala piztu zuten Alemanian mendeku-sentimendua, Europan zuen lurraldearen zortzirenari eta kolonia guztiei uko eginarazi baitzioten. Gainera, 100.000 soldadura murriztu zioten armada, ontziteriari 15.000 unitate kendu zizkieten eta debekatu egin zioten derrigorrezko errekrutamendua egitea.

Baldintza ekonomiko gogorrek estutu egin zuten herri teutoia. Lau alemaniarretik bat lanik gabe zegoen, langabeziaren ondorioz. Zalantzarik gabe, horiek guztiak elementu egokiak ziren giroan zebiltzan mugimendu nazionalistetarako. Horiek nork bideratu falta zen, besterik ez.

Agintari berriek politika bakezaletik berehala urrundu zuten Alemania, nahiz eta desarmatzeari buruzko biltzar bat egitera deitu zituzten nazioak, 1933aren bukaeran. Hura izan zen mugak gainditu zituen lehenengo iruzurra; izan ere, batzarraren ondoren, berriz armatzeko isilpeko prozesua abiatu zuten germaniarrek, 1934an onartutako programa bati jarraituz.

Urtebete geroago, argi hitz egin zuen goi-agintari batek: «Gaur altxatzen dira berriro Alemaniako Indar Armatuak», derrigorrezko soldadutzaren lege berria onartu bezain pronto. 1936ko udaberrian herritarren instrukzio militarra hasi zuten, eta berehala, hiriak eta herriak hartu zituzten tropek, «Alemaniarentzako edozein lurralde» hartuko zutela zin egin ondoren.

Potentziek ere ez zioten arriskuari antzeman Nurenberg-eko kontzentrazio jendetsuen ondoren. 1937ko azaroan, jada, zabalkunderako jokalekua ezarri zen, agerian geratu zen moduan gerra amaitu ondoren Nurenbergen 22 gerra-kriminal epaitu zituen prozesuan aurkeztutako dokumentuetan. Eta berehalako helburuak ere finkatu zituzten. «Lehenik Austria eta Txekoslovakiako anexo politikoa eta militarra»...

... Tropa alemanak Polonian sartu ziren; Frantziak eta Erresuma Batuak Varsoviako Gobernuarekin elkarri laguntzeko sinatutako konpromisoen arabera jokatu eta gerra deklaratu zuten. Hori 1939ko irailaren 1ean gertatu zen. Asteartean, hirurogeita hamar urte beteko dira.

*Testu moldatua  
Anje Ribera*



## **GALDERAK**

### **1. Erantzun, labur, galdera hauei, testuko informazioa eta zeurea erabiliz.**

- A) Zer gatazkataz ari da testua?: Datak, ezaugarriak, jokalekuak, eta abar. (1 puntu)
- B) Nola hasi zen gatazka? (2 puntu)
- C) Zer ondorio izan zituen gatazkak lurraldean eta politikan? (1 puntu)

### **A) Zer gatazkataz ari da testua?: Datak, ezaugarriak, jokalekuak, eta abar. (1 puntu)**

#### **Erantzuna**

Bigarren Mundu Gerraz ari da (1939-1945). Bigarren Mundu Gerra munduaren historiako gatazka armatu handiena eta odoltsuena izan da; Potentzia Aliatuak eta Ardatzeko Potentziak izan ziren aurrez aurre 1939tik 1945era bitartean. Hirurogeita hamar herrialdetako baino gehiagotako indar armatuek parte hartu zuten borroketan airean, itsasoetan eta lurrian. Gerraren eraginez, munduko garai hartako populazioaren % 2 inguru hil zen (60 milioi pertsona inguru), gehienak zibilak. Mundu osoko gatazka gisa, 1939ko irailaren 1ean hasi zen (hala ere, historialari batzuek diote 1937ko uztailaren 7an hasi zela Asiako frontean), eta 1945eko irailaren 2an bukatu zen ofizialki. Gerra Europara, Asiarara eta Afrikara hedatu zen nagusiki, nahiz eta bost kontinenteek parte hartu zuten eta denak izan ziren guda-leku.

### **B) Nola hasi zen gatazka? (2 puntu)**

#### **Erantzuna**

Bigarren Mundu Gerraren kausarik agerikoenak dira, batetik, Alemaniak Polonia inbaditu izana eta, bestetik, japoniarrek eraso izana Txinari, Amerikako Estatu Batuei eta britainiarrek nahiz nederlandarrek Asian zituzten koloniei. Ekintza bortitz haiek jasan zituzten herrialdeek eta haiekin hitzarmenak zituztenek gerra deklaratu, erresistentzia armatua erabili edo biak batera baliatu zituztenean piztu zen Bigarren Mundu Gerra.

Hasiera batean, herrialde aliatuak Polonia, Erresuma Batua eta Frantzia besterik ez ziren; Ardatzeko herrialdeak, berriz, Alemania eta Italia besterik ez, Altzairuzko Itunaren bidez elkar hartuta.

Gerrak aurrera egin ahala, ordea, sartuz joan ziren beste herrialde batzuk (beren borondatez edo eraso egin zitelako) alde batean zein bestean, bakoitzaren egoeraren arabera. Hori izan zen Estatu Batuen eta SESBren



kasua, Japoniak eta Alemaniak eraso zietenean, hurrenez hurren. Zenbait herrialde, Hungaria esaterako, gerraren azken unean aldatu ziren aldez.

Gizartean zegoen giroari 30eko hamarkadako hasierako Depresio Handia gehitu zitzaion eta Weimarko Errepublika ahula ez zen gai izan barruko ordenari eusteko; kaleetako liskar eta gatazka etengabeen ondorioz, populazio-sektore gero eta zabalagoak ordena eta segurtasuna eskatzen hasi ziren. Atsekabe eta ezinikusi horien guztietan bermaturik, alderdi naziak, Adolf Hitler buru zuela, nazioari bakea, indarra eta aurrerapena ekarriko zizkion elementu gisa aurkeztu zuen bere burua.

Hitlerrek, berehala, Versaillesko Itunak debekatzeko soldadutza jarri zuen indarrean berriz ere; Renania berriro militarizatu zuen 1936an, eta pangermanismo deritzon atzerri-politika erasokorra abiarazi zuen, Austriatik hasita (*Anschluss*) 1938ko martxoan. Pangermanismoak *Lebensraum* bilatzen zuen: Europa erdialdeko populazio germaniko guztia estatu baten mende biltzea.

Txekoslovakiako mendebaldea (Sudeteak deritzon eskualdea) jatorri germaniarreko populazio handiaren bizitokia zen, eta haien eskubideak bortxatuak ziren, Alemaniako gobernuaren arabera. Sudeteen anexioa 1938ko irailean onartu zen Munichen, Alemaniaren, Frantziaren eta Erresuma Batuen arteko biltzar batean. Daladier frantsesak eta Chamberlain lehen ministro britainiarrak uste zuten, baretze-politikari jarraituz, hura izango zela Alemania naziaren azken eskakizuna.

Edozein gerrak berekin duen lazturaz gainera, Bigarren Mundu Gerrak sufrimendu berriak ekarri zituen, gudaren handitasunari berari egotz ezin dakizkiokkeenak: Europan, Alemaniak kontzentrazio- eta lan-esparruetara egindako deportazio jendetsuak (juduak, homosexualak, eslaviarrak, urritasunak zituztenak, eta abar); zibilien kontrako aire-bonbardatze masiboak...

Gainera, lehenengoz, bonba atomikoa erabili zen gerra batean (geroztik ez da egundo halakorik egin): Estatu Batuek bi bonba jaurti zituzten, hiru eguneko tartean, Hiroshiman eta Nagasakin.

**C) Zer ondorio izan zituen gatazkak lurraldean eta politikan? (1 puntu)**

### **Erantzuna**

Bigarren Mundu Gerra lagungarri izan zen mundua bitan banatu nahi zuten bi superpotentzia azalertzeko: Estatu Batuak eta SESB.

NBEk ordeztu zuen Nazioen Elkartea (1919an sortua), zeren gerra pizten lagundu izana egotzi baitzitzaion. Eta NBEk nazioarteko gatazkak —belikoak, oro har— konpontzeko eginkizuna eman zion bere buruari. Nazio Batuen karta



San Franciscan sinatu zen 1945eko ekainaren 26an. Nurenbergeko eta Tokioko epaiketetan, gizateriaren aurkako krimenak egotzita epaitu eta kondenatu zuten nazien eta *Tenno* japoniarraren hierarkiaren parte bat.

Lurralde-aldaketei dagokienez, akordio eta hitzarmen guztiak gidatu zituen printzipio orokorra izan zen Europan 1937an indarrean zeuden mugetara itzuli beharra. Hiru salbuespen nagusi izan ziren: Alemaniaren lurraldea murriztea, lurralde sobietarra handitzea eta Poloniako lurraldea 225 kilometro "mugitzea" mendebalderantz. Hiru salbuespenak elkarri lotuak zeuden, noski.

Hauek izan ziren lurralde-aldaketa nagusiak Europan:

**Sobietar Batasunak** eskuratu zituen:

- Finlandiatik: Kareliaren zati handi bat, Vyborg hiria eta guzti, eta Petsamoko portua iparraldean. Ondorioz, Norvegiaren mugakide bihurtu zen.
- 1918tik 1940ra independente izan ziren hiru estatu baltikoak, hots, Estonia, Letonia eta Lituania.
- Alemaniatik: Ekialdeko Prusiaren iparraldeko zatia, Königsberg hiria barne (gaur egun, Kaliningrad).
- Poloniatik: Curzon lerrotik ekialderako eskualdeak.
- Txekoslovakiatik: Transkarpatia (Rutenia Transkarpatikoa).
- Errumaniatik: Besarabia (aurrerantzean Moldavia izena hartu zuena) eta Ipar Bukovina.

**Poloniak**, ekialdeko lurraldeen galeraren trukean, hauek eskuratu zituen:

- Ekialdeko Prusiaren hegoaldeko zatia eta Pomerania eta Silesia, Oder-Neisse lerroraino. Poloniak lurralde batzuk galdu arren, eskualde aberatsagoak lortu zituen, eta irteera ona Baltiko itsasora, garai bateko Alemaniako Danzig-eko (Gdansk izenarekin birbataiatua) eta Szczecin-eko portuen bidez.

**Alemaniak** berriro ere galdu zuen 1940an Hitlerrek anexionatutako Alsazia-Lorraena mendebaldean, eta, batez ere, lurralde handiak ekialdean, Poloniaren mesederako. 356.272 kilometro karradura murriztuta geratu zen; 1919an, berriz, 472.034 zituen, eta 1914an, 540.521.

**Italiak**, galerak murriztu arren 1943an armistizioa sinatu baitzuen Aliatuekin, lurralde txiki batzuk utzi behar izan zituen:

- Istriako penintsula, Fiume (Rijeka) barne, Jugoslaviara pasatu zen, baina Triesteri eustea lortu zuen.
- Rodas uhartea eta Dodekaneso artxipelagoa Greziari eman zitzaizkion.





## HISTORIA

## HISTORIA

- Albaniak independentzia berreskuratu zuen, eta Italiak koloniak galdu zituen (Etiopia, Somalia, Eritrea eta Libia).

Lurralde-aldaketak Lehen Mundu Gerran bano txikiagoak izan baziren ere, populazio-lekualdatze handiak gertatu ziren, eta horrek min erantsia ekarri zion gerrak hondatutako kontinenteari:

- 11-12 milioi aleman kanporatu zituzten SESBk eta Poloniak anexionatutako lurraldeetatik, Txekoslovakiako Sudeteetatik eta Balkanetako komunitate germaniarretatik.
- SESBri emandako ekialdeko lurraldeetako 2 milioi poloniar "mendebaldeko Polonia berria" kokatu zituzten.
- 400.000-500.000 finlandiar inguru kanporatu zituzten SESBk anexionatutako lurraldeetatik.
- Eslovakian bizi zen Hungariako populazioaren parte bat kanporatu egin zuten.
- Ekialde Urruneko aldaketek Japoniaren inperioa desagerrarazi zuten:
  - SESBk Sakhalin uhartea eta Kuril uharteak bereganatu zituen.
  - Japoniak Txinan, Korean eta Formosa uhartean (Taiwan) konkistatutako lurraldeak utzi behar izan zituen. Gainera, inperio zaharrea barreiatutako 7 milioi japoniarrek Japoniara itzuli behar izan zuten.

## 2. Kronologikoki ordenatu informazio hauek.

(1 puntu)

- Pragako Udaberria
- Erromako Ituna sinatzea
- Indiaren independentzia
- Aliatuak Normandian lehorreratzea
- New York-eko burtsak krak egitea
- Estatu Batuek Vietnamen esku-hartzea
- Benazir Butto Pakistango lehen ministro izendatzea
- SESB desagitea eta Estatu Independenteen Erkidegoa sortzea
- Bi Alemaniak berriro bat egitea

## Erantzuna

1929 New York-eko burtsak krak egitea  
1944 Aliatuak Normandian lehorreratzea  
1947 Indiaren independentzia  
1965 Estatu Batuek Vietnamen esku-hartzea



- 1968 Pragako Udaberria
- 1957 Erromako Ituna sinatzea
- 1988 Benazir Butto Pakistango lehen ministro izendatzea
- 1990 Bi Alemaniek berriro bat egitea
- 1991 SESB desagitea eta Estatu Independenteen Erkidegoa sortzea

**3. Egin ezazu mapa honen iruzkin labur bat. (2 puntu)**



Damasco	Damasko
Alturas del Golán	Golango gainak
Jericó	Jeriko
Jerusalén	Jerusalem
Mar Muerto	Itsaso Hila
Puente de Dasmira	Damia zubia
Hebrón	Hebron
El Cairo Occidental	Mendebaldeko Kairo
El Cairo	Kairo
ARABIA SAUDITA	SAUDI ARABIA
	Gerra aurreko mugak Aireko erasoak Aurreratzeak Paraxutisten erasoak Frontearen lerroa: ekainaren 5ean ekainaren 6an ekainaren 7an ekainaren 8an ekainaren 9-10ean

**Erantzuna**

Suezko krisiaren ondoren (1956), NBEko bake-indarrek Egiptoko eta Israelgo tropak banandu zituzten, bake oso ezegonkorreko egoera batean. Bitartean, bi superpotentziek beren posizioak indartu zituzten Ekialde Hurbilean.

1967ko maiatzaren 18an, Nasserrek Egiptoko lurraldean zeuden NBEko tropak erretiratzeko eskatu zion orduan NBEko idazkari nagusia zen U Thant-i. Tentsio gero eta handiagoko giro batean, Egiptok sobietarren eta gainerako herrialde arabiarren laguntza jaso zuen; AEBk, ordea, erabat lagundu zion Israeli.

Israeliek ustekabeko eraso bat joz eman zion amaia tentsioaldiari 1967ko ekainaren 5ean. Gerra bide erraza izan zen *Tsahal* armada hebrearrantzat. Sei egunean soilik, Egiptoko Sinai, Gazako zerrenda, Zisjordania, Jerusalemgo hiri zaharra eta Siriako Golango gainak israeldarren esku geratu ziren. Israelgo



estatuak okupatutako lurraldea 20.000 kilometro karratutik 102.400era pasatu zen. NBEren protestak eta potentzia handien desadostasuna gorabehera, Israelgo parlamentuak Jerusalemgo alde arabiarra anexionatzea erabaki zuen ekainaren 23an.

Arabiarren porrotaren erreakzioak berehala iritsi ziren:

- Khartumen (Sudan) abuztuaren 28an egindako estatuburu arabiarren konferentzian "Errefusaren Frontea" osatu zen: parte-hartzaileek konpromisoa hartu zuten Israel ez ezagutzeko eta harekin ez negoziatzeko, ezta bakea egiteko ere. Bien bitartean, Palestina Askatzeko Erakundea autonomia eskuratzeko ahaleginetan hasi zen, okupatzaile israeldarraren aurka borrokatuz.
- Nazio Batuek 242. erabakia hartu zuten 1967ko azaroaren 22an: Israelek okupatutako lurraldeetatik alde egin behar duela dio, frantsesezko bertsioan, eta okupatutako lurralde batzuetatik, ingelesezko bertsioan; halaber, eskualdeko nazio bakoitzak "bere muga seguruen barruan bakean" bizitzeko eskubidea duela esaten da.

Israelen 1967ko garaipen handia da, gaur egun arte, israeldarren eta palestinarren arteko arazoaren gakoa: Gazako eta Zisjordaniako lurralde okupatuen eta Jerusalemgo alde arabiarren egoera.

**4. Egin ezazu termino hauen definizio laburra. Seietatik hiru aukeratu behar dituzu.** (Ariketa, guztira: 3 puntu / puntu bat definizio bakoitzeko).

- a) Tximista-gerra
- b) Gerra Hotza
- c) Commonwealth
- d) Apartheida
- e) Protektoratua
- f) Armistizioa

#### **Erantzuna**

a) Tximista-gerra

Blitzkrieg delakoa eraso militar mota bat da, inguruaren bonbardaketa masibo batekin hasten dena; ondoren, indar korazatuak azkar eta sakon sartzen dira, fronte estu batean, hegazkinen ekinaldiak aurrez ahuldutako lurraldea okupatuz. Armada alemanak erabili zuen Bigarren Mundu Gerran.

Wehrmachtet baliatu zituen lehenbizi, praktikan, kontzeptu horiek, teknologia modernoarekin batera, Bigarren Mundu Gerraren hasierako gudaldietan. Poloniako operazioak nahiko konbentzionalak izan ziren, baina ondorengoak



(bereziki, Frantzia nahiz Herbehereak okupatzea eta Sobietar Batasuneko lehenengo operazioak) eraginkorrak gertatu ziren, hain zuzen, ustekabeko inbasioari, etsaiaren prestakuntza orokor urriari eta alemanen erasoei azkar erantzuteko ezintasunari esker.

#### b) Gerra Hotza

Estatu Batuak buru zituen mendebaldeko bloke kapitalistaren eta SESB buru zuen ekialdeko bloke komunistaren artean XX. mendean izan zen aurrez aurrekoari esaten zaio Gerra Hotza. 1945ean hasi zen (Bigarren Mundu Gerraren amaieran) eta komunismoa erori arte iraun zuen (1989an Berlingo Harresia erori zenetik 1991n SESBn estatu-kolpea izan zen arte).

Aurrez aurrekoa politikan, ideologian, ekonomian, teknologian, arlo militarrean eta informazioaren arloan gertatu zen.

Blokeek ez zuten inoiz elkarren kontra zuzenean jo; horregatik deitu zitzaion gatazkari "gerra hotza". Bi potentziak nazioarteko testuinguruan "botere-ardatz" gisa jokatzera mugatu ziren, eta herrialde aliatuei edo sateliteei ekonomikoki eta militarki laguntzera, beste blokeari kontra egiteko. Aurrez aurreko horiek mundu-gerrarik piztu ez zuten arren, gatazka ekonomiko, politiko eta ideologiko horien neurriak eta larritasunak eragin nabarmena izan zuten XX. mendearen bigarren erdiaren historiaren zati handi batean. Bi superpotentziek beren gobernu-eredua ezarri nahi zuten planeta osoan.

Gatazkaren mugak hauek dira: hasiera 1945etik 1947ra bitartean (Bigarren Mundu Gerraren amaiera eta gerraostearen amaiera, hurrenez hurren), eta bukaera 1985etik (perestroikaren hasiera) 1991ra bitartean (Sobietar Batasuna desagitea).

#### c) Commonwealth

Nazioen erkidego britainiarra. Britainiar kolonia eta agindupeko lurralde izan ziren eta orain independente diren lurraldeak biltzen ditu, eta elkarlan politiko, ekonomiko nahiz kulturalerako harremanak finkatzen ditu Erresuma Batuen zaintzapean eta lidergoan.

Erakundea 53 herrialde independentek osatzen dute; Erresuma Batuekin harreman historikoak izan dituzte guztiek, Mozambiquek izan ezik. Helburu nagusia arlo politikoan nahiz ekonomikoan nazioarteko elkarlana sustatzea da. 1950az geroztik, erakundearen sartzeak ez dakar berekin britainiar koroari men egiterik. Mozambique sartzearekin, erakundeak Nazioen Mankomunitate (Commonwealth of Nations) izena hobetsi du, izaera internazionalista nabarmentzeko. Hala ere, maiz erabiltzen da oraindik britainiar izenondoa nazioarteko bestelako mankomunitateetatik bereizteko. Erresuma Batuko Elisabet II.a erregina da erakundearen burua eta, mankomunitatearen printzipioen arabera, "kideak libreki elkartu izanaren sinboloa".



d) Apartheida

Arraza-bereizkeriako politika, zeinaren arabera arraza batek, kasu honetan zuriak, jarduera sozial eta partikular guztiak bereizita egitera behartzen baitu beste arraza (beltza). Horrek esan nahi du bata nagusitzen dela politikoki, eta besteari eskubideak ukatzen zaizkiola.

Apartheida izan zen Hegoafrikan urte askoan egindako arrazakeriazko jokabide askoren sorta bat, baina 1948 arte ez zuen forma juridikorik hartu; orduan, horretarako indarrean jarritako legeen babesa jaso zuen.

1950ean argitaratutako lege batek ezarri zuen hiriko zenbait gunetan zuriak bakarrik zutela jabe izateko aukera; hala, zuriak ez zirenak beste norabait emigratzera behartzen zituen. Legeek gunere bereizitako finkatu zituzten hondartzetan, autobusetan, ospitaleetan, ikastetxeetan eta baita parke publikoetako eserlekuetan ere. Beltzek eta koloreko gainerakoek, bestalde, nortasun-agiria eraman behar zuten aldean beti, eta debekatua zuten zenbait hiritan baimenik gabe geratzea edo baita sartzea ere.

e) Protektoratua

Protektoratu deritzo estatu batek lurralde batean burujabetza partziala — nagusiki kanpo-harremanei dagokiena— izateari, lurralde hori estatu haren erabat mendekoa ez denean eta agintaritza autoktonoa duenean.

Protektoratuan agintari politikoak mantentzen dira, baina metropoliak kontrolatzen du militarri eta politikoki.

Adibide moduan, Espainiak eta Frantziak garai batean Marokon ezarritako protektoratua aipa genezake, non tokiko biztanleekiko agintea sultanarena baitzen, eta tokiko indar militar eta polizialak ere baitziren, baina herrialde babesleeta armaden zaintzapean.

Herrialde horietako gobernuen ordezkaria, Espainiaren kontrolpeko eskualdean, goi-komisarioa zen, gehienetan jeneral bat, eta Frantziaren kontrolpeko lurraldean, egoiliar nagusia.

f) Armistizioa

Gatazka militar batean borrokak behin-behinean etetea, borrokalariak hala erabakita. Bakea sinatu aurrekoa izan ohi da. Ez dakar, nahitaez, bake-hitzarmen bat sinatu beharra; borroka etetea besterik ez da. Historian zehar, zenbait gerratan, garai berezietan sinatu izan dira armistizioak. Adibidez, armada kristauek ez zioten batak besteari erasotzen Eguberrietan. Armistizioa izateko egoera bat da, eta ez da bake-hitzarmen baten parekoa. Adibidez, Koreako gerrako 1953ko armistizioaren ondoren ez da bake-hitzarmenik izan. Historian zehar hainbat armistizio-ahalegin izan dira, esaterako Frantziaren eta Alemaniaren artekoa (1940) Bigarren Mundu Gerran.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

**HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

**HISTORIA**

---

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO HARREMANA**

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA-ADIERAZLEA</b>
1	1.1; 4.1; 5.1
2	1.1; 1.2; 3.1; 4.1; 5.1
3	3.31
4	1.1; 1.2; 3.1; 4.1; 5.1